



**FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA**

Martin Barua Picaza nº 27, 4ª planta; 48003 BILBAO

Tfno.: 94.443.17.34 - Fax: 94.444.35.62

www.bmf-fvm.org - info@bmf-fvm.org

**BIZKAIKO KLUBEEI ZUZENDUTAKO BMF-aren
DIRU-LAGUNTZEN GAINEKO IRIZPIDEAK**

A.- APLIKAGARRIAK DIREN PRINTZPIO OROKORRAK

1. Klub guztien jarduera-egutegia ezagututa, zuzentasun-printzipioa dela medio, irizpide uniformeen erabilera.
2. Mendi-jardueren sustapenari onura argiak badakarten oinarria hartuz, diruz lagungarriak izatea merezi duten jardueren identifikazioan bidezko eta irizpide koherenteen aplikazioa.
3. Dirulaguntzak dituzten jardueretan parte-hartzaileen kopuru minimoaren eskakizuna, kirolarien esku-hartze gehiena nagusituz.
4. Aurreko puntua lortzeko eta talde txiki eta itxiek diru-laguntzez etekina atera dezaten saihesten saiatzeko, jarduerak formalki jakitera eman, Klub eskatzaileen eremuan gutxienez.
5. Klub eskatzaileek diruz lagungarriak diren jarduerak zuzenki kudeatzeko beharra, beraien Zuzendaritza-Batzordeen kideen bidez,.
6. BMF-aren formatu espezifikoak erabiliz eskaera egokiaren aurkezpena.

B.- BEHAR ARAUEMAILEAK

1. BMF-aren BARNE-ARAUDIKO 4-c) ARTIKULOA:
 - Kluben jarduera egutegian BMF-aren logotipoa sartzea.
 - Baita Kluben web-orrian ere
 - BMF-aren weberako Kluben webaren lotura
2. BMF-aren BARNE-ARAUDIKO 4-c) ARTIKULOA:
 - Urte osokoko jardueren egutegia Federaziora bidaltzea
 - Kluben Zuzendaritza-Batzordeen eguneratutako konposizioa BMF-ra bidaltzea.
 - Sei hilabeteko aldizkakotasunarekin, egindako jardueren erlazioa bidali parte-hartzaileen kopurua aipatuz
3. OHAR OSAGARRIAK:
 - BMF-aren diru-laguntzak jaso ahal izateko, bere bolumenagatik edo naturagatik Kluben urteroko egutegietan sartzen ez diren jarduerak, bere errealizazioa baino lehen Federazioarekin idatziz harremanetan jarri beharko dira, aurretik aipatutako baldintza berdinekin.
 - BMF-aren Barne-Araudiko 4-d) artikuluan jasotzen den bezala, atal honetan seinalatutako beharren ez betetzeak Kluben baztertzea ekartzen du laguntza edo Federazioaren diru-laguntza ekonomikoen banaketari dagokionez.

C.- DIRU-LAGUNTZEI ZUZENDUTAKO ZENBATEKOAREN MUGA



**FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA**

Martin Barua Picaza nº 27, 4ª planta; 48003 BILBAO

Tfno.: 94.443.17.34 - Fax: 94.444.35.62

www.bmf-fvm.org - info@bmf-fvm.org

BMF-ak Klubeei zuzendutako diru-laguntza banagarrien erabateko zenbatekoa, Zuzendaritza-Batzordeak ezarritako sarreren gainean ehuneko maximoaz mugatua egongo da, adibidez, federazio-lizentzietatik, aseguru-estornuetatik, ariketa ekonomiko bakoitzaren soberakinetatik eta Federazioan Elkartutako Kirolerako diru-laguntzetatik datozenak...

D.- DIRU-LAGUNTZEN-BANAKETARAKO IRIZPIDEAK:

I. FEDERATUEN KOPURUAREN ARABERA:

- Klub bakoitzeko kide diren haur eta gazte-federatu bakoitzagatik 10€-ko diru-laguntza.
- Federazioak jasotako aseguru estornuei buruzko zenbatekoen banaketa orokorra (beti ere, hauek garrantzia baldin badute)

II. JARDUERENGATIK

- **HAURRENAK:** jardueran parte-hartzen duten federatutako haur bakoitzagatik 10 puntu.

- **IBILALDIAK:** (gutxienez 10 parte-hartzaile): Asteburu-irteeretako parte-hartzaile bakoitzagatik 5 puntutako esleipena eta egun osoko edo egun erdiko-irteeretako parte-hartzaileengatik 4 puntutako esleipena.

- **EGONALDIAK:** (gutxienez 10 parte-hartzaile): 8 egun edo gehiagoko egonaldietako parte-hartzaileengatik 8 puntuko esleipena eta 3 eta 7 egunen arteko egonaldietako parte-hartzaileengatik 6 puntuko esleipena.

Egonaldiak Aterpeetan egiten diren kasu guztietako puntu gehigarri bat.

- **ARAUTUTAKO MARTXAK:** Klubaren parte-hartzaile bakoitzagatik 8 puntu eta Klubarekin zerikusirik gabeko parte-hartzaile bakoitzagatik 10 puntu.

KULTURA-EKINTZAK ETA PROIEKZIOAK

(Mendiarekin Erlazionatuta)

2 puntu Parte-hartzaile bakoitzagatik.

- **MUGAK:**



**FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA**

Martin Barua Picaza nº 27, 4ª planta; 48003 BILBAO

Tfno.: 94.443.17.34 - Fax: 94.444.35.62

www.bmf-fvm.org - info@bmf-fvm.org

- Diruz lagungarriak diren jardueretan Klubaren esku-hartzea antolatzaile izatearen ordezkolaboratzaile bezala bada, puntuen % 25 ezartzen da.
- Diru-laguntza duten jarduerari esleitzen zaion puntu-kopuru handienak ezin izango du 4.000 puntu gainditu.

III. BANAKETA-METODO-a :

- Jarduera bakoitzagatik diru-laguntzen banaketarako, Klubek aurkezten dituzten eskaerentzat aurreko atalean esandako puntuak esleitzen dira.
- Ondoren, Klub bakoitzari esleitutako puntu guztiak zenbatzen dira.
- Banatuko den erabateko diru-laguntzaren zenbatekoa Klub bakoitzari esleitutako puntu-kopurura proportzionalki lotuko da.

E.- ESKAERAK:

- Arau honen arabera diruz lagungarriak diren egindako jardueren eskaeren harrerarako BMF-tik jarritako epea, urtarrilaren 1etik otsailaren 15era hedatzen da urtero.
- Diru-laguntzen ordainketa aipatutako ariketa ekonomikoaren kontuak Batzar Orokorrean behin onartuta egingo dira.

F.- BESTE ALDERDI BATZUK:

1. Jarduerengatik jasotako diru-laguntzen kapituluan ez dira ikastaroak sartzen, hauek tratamendu espezifikoa bait dute gure Federazioaren aldetik.
2. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak talde-argazkia duten txosten batekin joango dira. Informazio grafiko honen aukeraketa bat urtero BMF-ak Diputaziorako lantzen duen Memorian sartuko da.

Adeitasunez,
BMF-ko ZUZENDARITZA-BATZORDEA
2015eko, abendua